

ARAITZ-ARESO-BETELU-LARRAUN ETA LEKUNBERRIKO KIROL MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIAREN LANPOSTURAKO ORDEZKAPENA ETA LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA.

Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak Kirol teknikaria behin-behinean ordeztu eta lan poltsa bat eratzeko deialdia luzatzen du. 1._Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatearen zerbitzuko kirol koordinatzailearen ordezkaren ordezkapena oposizio-lehiaketa bidez betetzea eta lan poltsa bat sortzea etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanposturako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda baliatuko dugu. Ondotik hautespen proba egin eta gainditzen dutenekin zerrenda osatuko dugu puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

Zerrenda erabiliko da behin-behineko ordezkapenatarako lanen bajengatik, oporregatik edo kirol zerbitzuak indartzeko behar puntualengatik; halakoetan kontratazioa egokituko da kasuan kasuko lanpostura.

Edozein kasutan, deialdi honetatik sortuko den zerrenda orain indarrean dena osatzeko izanen da. Horregatik dagoeneko baden zerrendako hautagaiei deituko zaie lehenbizi eta ondoren deialdi honen bidez ezarriko den zerrendan ageri direnei.

1.2. Izendapenak behin-behinean lan-kontratadun bilakatuko du izendatua ordezkapena egiteko, ondorio guztietarako, kontratatua den unetik ordeztua lanpostura itzultzten den arte edo titularra lehenago itzuliko balitz hau itzultzten den arte.

1.3. Lanpostuak B mailari dagozkion lanskariak izanen ditu, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera eta egun mankomunitatean indarrean dagoen plantilla organikoaren arabera.

1.4. Hautapen probak gainditu ondotik deialdi honetako lanpostua betetzeko izendatzen den izangaia, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko da; alta emanen zaio araubide horretan eta hark aurreikusten duen babesa izanen du.

1.5. Lanaldia osoa izanen da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da; administrazio organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera.

1.6. Lanpostuak nahitaezko hizkuntz eskakizun hau du: C1 maila edo E.G.A.

2._Eginkizunak.

2.1. Deialdi honen kariaz izendatzen den izangaia ondoko eginkizunak izanen ditu:



kirolmank
ARAITZ-ARESO-BETELU-LARRAUN eta
LEKUNBERRIKO KIROL MANKOMUNITATEA

- a) Alorrak landu beharreko programa eta jarduerak diseinatu eta planifikatzea, baita haiek antolatu eta abian jartzea ere, hartutako erabaki eta irizpideei jarraituz: kirol jarduerak, partaidetzakoak eta aisialdikoak.
- b) Zuzendu eta ongi burutzea herritarren kiroleko, aisiako eta astialdiko jarduerak, kirol eskola eta klub bidez; orobat, bere eskumeneko alorrean herritarrek gauzatzen dituzten jarduerak guztiak.
- c) Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako taldeak osaraztea eta bultzatzea eta behar den laguntza teknikoa ematea, antolaketak ezarritako betebeharrekin bat.
- d) Herritarren mugimendu eta ekimenak sustatzea eta laguntzea bere jarduerak esparruan, elkarren arteko jardueren plangintza egin ahal izateko.
- e) Herritarrei harrera egitea eta informazioa eta orientabideak ematea bere lan esparruko gaitan.
- f) Herritarren eskakizunak eta eskaerak kudeatzea, eta haiek betetzeko behar diren ekintzak taxutzea.
- g) Antolaturiko jarduerak eta programak iragartzeaz eta ezagutarazteaz arduratzea.
- h) Programaturiko jarduerak nola betetzen diren ebaluatu eta segimendua egitea, eta beharrezkoak diren zuzenketak sartzea.
- i) Parte hartzea, eta Mankomunitateari argibide eta aholku ematea, eta horretarako txostenak prestatuz eta erabaki posibleak aztertuz, eta aktak prestatzea eta kontabilitatea eramatea.
- j) Kirol instalazioak erabiltzeko ordutegiak antolatzea, abonodunek, kirol eskola eta kublek, bizilagun elkarteek, federazioek eta abarrek erabil ditzaten.
- k) Harreman etengabea izatea kultura, hezkuntza, emakume edo gazteriaren alorrekin eta besteekin, udalerri guztietan kirola bultzatzeko.
- l) Herriko festetako kirol jarduerak, kirol jarduerak bereziak, kirol ikuskizunak eta horien antzekoak taxutu eta planifikatzea. Horiek antolatu, abian jarri, kontrolatu eta bukatzeko lanetan, zuzendari lanak egitea.
- ll) Aipatutakoez gain, bestelako zereginak beteko ditu: bere karguari lotutako gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat, ezarritako helburuak lortzearen agintzen zaizkionak.

3. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko izengaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

3.1. Hautaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste edozein estatutakoa edukitzea eta adinez nagusi izatea..

Gutxienez Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatu-titulua izatea.

- b) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

- c) Euskara maila: Euskarazko C1 edo titulu baliokidea izatea. Titulurik eduki ezean izangaiak proba bat gainditu beharko du titulazio horren baliokide izanen dena.
- d) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik berezia ez izatea.
- e) Gidabaimena izatea, gutxienez ere B1 kategoriakoa.

3.2. Baldintza horiek deialdi honetako laugarren oinarrian adierazietako epean eta eran frogatu beharko dituzte izangaiak, baita bete ere oposizio-lehiaketak dirauen bitartean eta izendapena egiten den arte.

4. Eskabideak.

4.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Lekunberriko Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira hamabost egun naturalen epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Lekunberriko Udalaren web orrian (www.lekunberri.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako edozein modutan.

4.2. Eskabideak deialdi honetan argitaratutako ereduari egokitu behar zaizkio (II. eranskina). Eredu hori Lekunberriko Udaleko Erregistro Orokorrean edo haren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da (Alde Zaharra kalea 41, 31780 Lekunberri).

Eskabide-orrietan, izangaiak adierazi beharko dute eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunari dagozkion baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela.

4.3. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Nortasun agiri nazionala edo horren parekoaren kopia konpulsatua.
- b) Deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpulsatua edo titulua lortzeko eskubideen ordainagiriarena.
- c) B1 gidabaimenen konpulsatua edo parekoa.
- d) Zortzigarren oinarrian ezarri diren merezimenduak oposizio-lehiaketaldian baloratuko direnak frogatzen dituzten agiriak. Agiriak jatorrizkoak edo behar bezala konpulsatutako kopiak izanen dira, bestela aurkeztu gabetzat joko dira.

4.4. Izangaiak oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu eta frogatu beharko dituzte baldintzak eta merezimenduak, agiri bidez, edo, betiere, eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean. Dokumentazio hori aurkezten ez bada eskabideetarako ezartzen diren epean eta moduan, merezimenduak ez dira baloratuko. Nolanahi ere, oposizio-lehiaketaldiko merezimenduak kontuan hartzeko, epearen mugatzat hartuko da deialdi honetan parte hartzeko azken eguna.

4.5 Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

5. Epaimahaia

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:



_Mahaiburua: Joseba Ordoqui Ochoa, Araitz-Areso- Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko burua.

Ordezkoa: Beteluko Udaleko ordezkaria, izendatzeke.

_1. Mahaikidea: Xabier Azpiroz, Araitz-Areso- Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko partaidea.

Ordezkoa: ordezkaria, izendatzeke.

_2. Mahaikidea: Txomin Belauntzaran, Araitz-Areso- Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko partaidea.

Ordezkoa: ordezkaria, izendatzeke

_3. Mahaikidea: Nerea Martiarena Vallero, Araitz-Areso- Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko partaidea.

Ordezkoa: ordezkaria, izendatzeke

_4. Mahaikidea: Igor Otermin Egia Araitz-Areso- Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko partaidea.

_5. Kidea: Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko teknikari izendatua.

Ordezkoa: izendatu beharreko Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko teknikaria.

_6. kidea: Amaia Gerrikagoitia Uriarte, Sakanako Mankomunitatearen ordezkaria.

Ordezkoa: Nafarroako mankomunitate eta udaletako ordezkari tekniko bat, izendatu beharrekoa.

-7.- Idazkaria: Lekunberriko Idazkaria

Ordezkoa: Ordezko idazkaria, izendatzeke.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

5.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

5.4. Epaimahaiak aholkulari adituak ekarri ahalko ditu proba guztietarako, edo batzuetarako soilik.

6. _Hautaketa-lehiaketaren nondik norakoak.

6.1. Hautaketa-lehiaketa bi alditan gauzatuko da, oposizio aldia lehenbizi eta lehiaketaldian gero.

Gehienez 70 puntu lortu ahal direlarik.

7. _Lehiaketaldia.

7.1. Lehiaketaldian 15 puntu lortu ahalko dira gehienez eta ez da baztergarria izanen.

7.2. Laugarren oinarriaren arabera alegatu eta frogaturiko merezimenduak ondoko baremoari jarraikiz baloratuko dira:

_Administrazio publiko batean, kirol koordinatzaile gisa edo horren antzeko beste lanpostu batean emandako zerbitzuak: lanaldi osoan urtebete egiteagatik puntu 1; gehienez ere 7,5. Gutxienez lanaldi erdian betetako lanpostuak baloratuko dira, betiere dagokien proportzioan. Nork bere toki administrazio publikoko organo eskudunak emandako egiaztagiriaren bitartez frogatu beharko du.

_Entitate pribatuetan kirolaren arloko edo gizartearen eta kirolaren arloko kudeaketari lotutako zerbitzuak ematea: lanaldi osoan urtebete egiteagatik 0,5 puntu; gehienez ere 5. Gutxienez lanaldi erdian betetako lanpostuak baloratuko dira, betiere dagokien proportzioan. Zerbitzu horiek frogatzeko, lan kontratua edo horren kopia behar bezala konpultsatua aurkeztuko da; horrekin batera, lan bizitzaren ziurtagiria.

_Jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak eta masterrak, kirol arloko planifikazioari, kudeaketari, kalitateari, giza baliabideei, programazioari, antolakuntzari edo ebaluaziori buruzkoak: puntu bat 100 orduko; gehienez ere 2,5 puntu. Ikastaroa eman zuen entitateak luzatutako ziurtagiriaren bidez frogatuko da; hor berariaz agertuko da zenbat ikastordu izan diren.

8. Oposizio-fasea

8.1. Oposizio-faseak hurrengo ariketak izango ditu, eta gehieneko puntuazioa 55 puntukoa izango da.

_euskara-proba: eskatutako euskara-titulazioa ez duten izangaiek gaitasun-proba bat egin beharko dute. Proba hori epaimahaiak egindako ahozko eta idatzizko ariketa izango da, eta izangaia gai edo ez-gai gisa kalifikatuko da. Proba hori INAP eko teknikariek egingo dute, oposizio-faseko ariketak hasi aurretik, eta kanporatzailea izango da.

Euskarabideak adierazitako egunean egingo da ariketa hori, eta Kirolmankomunitatearen udal-webgunean argitaratuko da aldez aurretik.

Oposizio-fasea:

A) Lehenengo ariketa:

I. eranskinetako gaiekin lotutako 3 galdera labur eta luze bat egingo dira idatziz, gehienez ere bi orduz. Atal honetako gehieneko puntuazioa 20 puntukoa izango da.

Proba honetan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten izangaiek kanporatuta geratuko dira.

B) Bigarren ariketa:

Kirola kudeatzeko eta planifikatzeko kasu praktikoei buruzko ariketa bat da, gehienez ere 3 ordukoa. Atal honetako gehienezko puntuazioa 30 puntukoa izango da.

15 puntura iristen ez diren hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

C) Hirugarren ariketa:

Kasu praktikoari buruzko elkarrizketa. Atal honetako gehieneko puntuazioa 5 puntukoa izango da.

8.3. Probak egiteko datak, orduak edo tokiak legez aurretiaz argitaratuko dira.

8.4. Hautagai guztiek joan beharko dute probetara, nortasun-agiri nazionalarekin edo legez parekatutakoarekin. Frogetan iruzur eginez gero, berehala baztertuko da, hala badagokio, zigor-arloko jardunei kalterik egin gabe.

8.3. Epaimahaiak noiznahi eskatu ahalko ditu lehiatzaileek azaldutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu

9. Probak gainditu dituztenen zerrenda, epaimahaiaren proposamena eta agirien aurkezpena.

9.1. Oposizio-lehiaketako bi aldiak bukatu ondoren, epaimahaiak Beteluko Udaletxeko iragarki oholean eta kirol mankomunitateko blogean paratuko du probak gainditu dituztenen zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, izangaiek lehiaketaldian eta Oposizio aldian lortutako puntuazioak batuz, eta puntuaziorik handiena lortzen duen izangaiaren aldeko izendapen proposamena egingen du. Aipatu proposamena Beteluko Udaletxeko iragarki oholean eta kirol mankomunitateko blogean emanen da argitara.

9.2. Izendapen proposamena argitaratu ondoko 5 egun naturaleko epearen barrenean, proposaturiko izangaiak Beteluko Udalaren erregistroan ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- b) Deialdiko hirugarren oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.
- c) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizi ez izanaren zinpeko aitorpena.

Aipatu epearen barrenean, eta aski arrazoituriko ezinbesteko kasuetan izan ezik, aipatu agiriak aurkeztzen ez baditu, ezin izanen dute izendatu eta, beraz, bere jarduketa guztiak deuseztaturik geldituko dira, betiere bere eskabidearen faltsukeriagatik legokiokkeen erantzunbeharra ukatu gabe.

Aitzineko lerroaldean aurreikusitakoa gertatuz gero, gainditu dutenen zerrendan ondo ondotik heldu den izangaiarekin beteko da hutsunea eta horrekin ere aitzineko ataletan adierazi bezala jokatuko da.

10. Errekurtsoak

10.1. Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, aukeran, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta bihamunetik hilabeteko epean.

Betelun, 2020ko ekainaren 1ean_ Araitz- Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko burua, Joseba Ordoqui Ochoa.

I. ERANSKINA- TEMARIOA

1. gaia. Nafarroako Udal Kirol Zerbitzuen eskumen-esparrua eta horiek kudeatzeko moduak eta moduak, indarrean dagoen legeriaren arabera.
2. gaia. Tokiko kirol-sistema: kontzeptua, funtzioak eta utilitateak udalaren kirol kudeaketan.
3. gaia. Kirol-instalazio eta - ekipamenduen oinarritzko baldintzak eta segurtasun-neurriak arautzen dituen apirilaren 20ko 38/2009 Foru Dekretua.
4. gaia. Lekunberriko hainbat sektore eta biztanleria-motatan kirola eta ariketa fisikoa egitea sustatzea: egindako programa eta proiektuen motak eta ezaugarriak.
5. gaia. Kirolean osasuna sustatzeko udal-programak: motak eta ezaugarriak.
6. gaia. Género-ikuspegia txertatzea eta berdintasuna sustatzea udal-kirolean.
7. gaia. Eskola-mailan kirol anitzak sustatzeko udal-programak: motak eta ezaugarriak.
8. gaia. Udalaren kirol-zerbitzuak kanpora ateratzea. Jarraipen eta kontrol optimoa egiteko mekanismoak eta gakoak.
9. gaia. Udal Kirol Zerbitzu baten jardura ebaluatzeko kudeaketa-adierazleak.
- 10.- gaia. Nafarroako toki erakundeentzako diru-laguntzak, beste administrazio publiko batzuek kirola susta dezaten Nafarroan eta Estatuan: motak eta ezaugarriak.
- 11.- gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua. Xedapen orokorrak. I. titulua. Prozedurako interesdunak. II. titulua. Administrazio publikoen jardura.
- 12.- gaia. Lekunberriko udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza. I. kapitulua Ordenantzaren xedea eta aplikazio-eremua. III. Kapituluak. Herritarren eskubideak. V. kapituluak. Udalaren barne-funtzionamendua eta langileak. VII. Kapituluak euskara sustatzea.

II. ERANSKINA

Eskabide eredua

Izena, adinez nagusia, N.A.N. zenbakia, jaioteguna, jaioterria (.....), bizilekua, jakinarazpenak egiteko: (.....), kalea, zenbakia, etxebizitza, posta kodea telefonoa eta korreo elektronikoa.....

Ante Vd. Zure aitzinera agertu eta adierazten dut:

Eskatzen dut onartua izatea Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatearen zerbitzuko kirol koordinatzailearen behin-behineko ordezkapena burutzeko eta lan poltsa eratzeko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdira.

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Badudala deialdiko hirugarren oinarrian adierazten den titulazioa.

Ez naizela bereizia izan ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik eta ez nagoela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua.

Deialdian ezarritako azterketa eskubideak ordaindu ditudala, eta horren egiaztagiria erantsi dudala.

Baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen.

Horrenbestez,

Eskatzen dut eskabide hau onartzeko eta, ondorioz, onartua izateko Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatearen zerbitzuko kirol koordinatzailearen behin-behineko ordezkapena egiteko eta lan poltsa eratzeko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdira.

Euskara proba BAI / EZ (markatu aukera egokia)

Lekunberrin, 2022koaren(e)an.

(Eskatzailearen sinadura)